


*Emilia López*  
*Adan*  
*“Beltza”*



**AUTONOMIAREN**

**HISTORIAZ**

Fondo documental **EHK** Dokumentu fondoa  
**Euskal Herriko Komunistak**

# Autonomiaren historiaz

---

Emilio LOPEZ ADAN (*Beltza*)

*Este trabajo ha sido convertido a libro digital  
por militantes de EHK,  
para uso interno y forma parte del  
material de trabajo para el estudio e  
investigación de la historia del  
MLNV*

<http://www.ehk.eus>

<http://www.abertzalekomunista.net>

## **AURKIBIDE**

1968-1977: MASA BORROKAN PARTAIDE ZUZENAK  
IDEOLOGIA, TALDEAK ETA KOORDINAKETAK  
AUTONOMÍA HERRIKOIAREN KRISIA  
KAS ALTERNATIBAREN KONTRA ETA ENAM-EKIKO HARREMANAK  
KOMANDO AUTONOMO ANTIKAPITALISTAK  
MENDEKUZ MENDEKU HONDAMENDIRAINO  
ETORKIZUNA, IZATEKOTAN, GUREA DA

Liburu honetan testigantzak ezagutuko dituzu, irakurle. Borrokan ibili direnen lekukotasun biziak. Beraiek dute lehentasuna.

Hitzaurre honen helburua irakurketa erraztea da. Protagonistek aipatzen dituzten gertakariak lekuan eta denboran kokatzeko, autonomiaren historia laburra eman nahi dizu. Eta historia honetan, tiki eta egunekin ideiak ere aurkituko dituzu.

Gezurra badirudi ere, autonomiaren historia atzo bertakoa da. Masa borrokaren denbora 1968an hasi zen eta 1977ra arte iraun zuen jori-joria. Han euforia iraultzailea arnasten zen; hau ezaguturik ulertuko duzu, agian, nola autonomiak egin zuen lan eskergea kokatzen zen herri oso baten mugimenduan. Ez imajinatu autonomoak marginalak edo asozialak; alderantziz, mugimendu espontaneo herrikoiairen partaide ezagunak, biziak eta integratuak ziren.

Euforia urteak ikusi eta, beherapena ere ezagutu eta sentitu behar da. Hain zuzen, Autonomiaren espresabide armatua, Komando Autonomo Antikapitalistak (KAA) beherapenaren urteotan hedatu ziren. Beren borroka, beraz, gogorra bezain tragikoa gertatuko da: oinarrian zituzten masek eta ametsek huts egin zieten, errepresio beldurgarria jasan zuten, eta Euskadiko mugimendu errupturista handiena, ENAM alegia, kontra ezarri zitzairen. Protagonisten hitzetan aurkituko dituzun ele mingotsak aise konprenitzen ahal dira.

## 1968-1977: MASA BORROKAN PARTAIDE ZUZENAK

Has gaitezen 1968an. Espainian oraindik Franco zen nagusia. Langileen borrokak hedatzen ari ziren fabriketan; gerla galdu zuten euskaldunak beren burua jasotzen ari ziren; errepresioaren kontra denek bat egiten zuten eta kontzientzia iraultzailea areagotzen ari zen.

Gure protagonisten artean, oinarrizko motibazioak argiak dira. Anitzek fabriketan izango dituen lehen esperientzia organizatiboak, lehen borrokak, lehen amorruek; asko euskaltzale da, eta, konstante gisa, Autonomoen artean euskaltzale amorratu asko kausituko dugu. ETAn eta inguruko mugimenduetan hasi ziren beste batzuk. Bakar batzuk datoz anarkismo klasikoak.

Azken finean, eta salbuespenak salbuespen, autonomiak bere alorra aurkitu zuen Euskadin, nazio menperatu gisa; Euskadiko langileen askatasunaren alde borrokatu du, eta askatasun hau gihartzeko prozesu bakar batean sinetsi zuen, iraultza soziala eta estaturik gabeko independentzia ekarri behar dituen prozesuan.

Burgoseko Gerla Kontseiluaren aurkako borroketan (1970) aurkitu zuten fronte guztiak batzeko parada autogestionarioa. Lantegi askotan, auzoetan, asanbladak egin ziren, eta kale borroka izan zen asanblada horien jarraipen naturala. Goitik pentsatutako estrategiarik gabe, herriak berak aurkitu zuen bidea. Esperientzia hori ez da ahazten.

Askatasunaren irrikaz, entseguak biderkatu ziren lantegietan, auzoetan eta mugimendu sozialetan. Aurkitu baino lehen bilatu behar. Bizpahiru urtez etengabeki ibiliz geroz, 1974 eta 1977 arte ezagutu genituen borroka bizienak, praktika sozial aski finkatuan gihartu zirenak. Egoera laburtzeko, hau esan dezakegu: lehen urteotan, asanbladak eta Lantegi Kontseilu eta Delegatuen esperientziak puntualak dira, askotan sindikatu eta alderdiak hauek erabiltzen saiatzen dira; baina gero tresna iraunkorak bilakatzen dira, eta beren bidez zuzentzen da langileen mugimendua. Elkarte publiko eta unitarioak egiten dira eta alderdiek eta sindikatuek onartu behar dute langileriaren autoorganizazioa.

Ez gara harritu behar protagonistak optimistak, gogorrak, ilusioz bete, ibiltzen badira.

Asko fabriketan ibili da. Frankismoaren azken urteotan, Sindikatu Bertikala gainditua zela eta, langileek egitura berriak eta funtzionalak aurkitu zituzten. Lantegietan biltzen ziren, bai arazo laboralak bai eta errepresioa edo politika aipatzeko. Bilgune naturala lantegia zen: nagusia bilerak onartzera behartzen zuten. Errepresioa zela kausa lantegietan ezin bilduz, hirietako askatasunaren esparruak (plazak, elizak, elkarrekin...) baliatzen zituzten, edo bestela mendira, jende asko biltzeko. Mendian egindako bileretan, langileek kontrolak ezartzen zituzten bideetan, txibatoei sarrera galerazteko edota polizia heltzen bazen abisatzeko.

Asanblada zen leku nagusia: han aipatzen eta erabakitzen ziren egitekoak. Baina lan iraunkorra jarraitzeko, langileek hautatzen zituzten komizioak, edota militante motibatuenek eratzen zituzten enpresako komiteak eta enpresa kontseiluak. Azken finean, asanblada zen lehena; asanbladari komiteek eta kontseiluek egonkortasuna eta jarraipena eman behar zizkieten, inongo sustatuismorik gabe.

Giro honetan, biolentzia onartzen zen, bai probokazioei eta poliziarri erantzuteko, bai eta lantegian espezifikoa den sabotaiaren obratzeko.

Hirian ere, karriketan, borroka guztiz presentea zen. 1967an dagoeneko Errekaldeberrin estrainatu Auzo Elkarteak (Asociaciones de Vecinos - AAVV.) mugitzen hasi ziren Bilbo Handian. Hego Euskal Herri osora hedatu ziren gero: 1969an Donostian eta Erreterian, 1970ean Iruñean, 1974an Gasteizen. Haiekin batera, eta lantegietan ari ziren egituren antzekoak, Auzo Elkarte edo Komiteak egoten ziren, militante politizatuenekin eginak. Komite hauek oso aktiboak izan ziren Gipuzkoan eta Nafarroan bereziki, 1975 arte. Gero, legalitate demokratikoarekin, AAEEtan integratu ziren.

Borroka urbano honek esparru zehatzak zituen. Hirigintza oso garrantzizkoa zen, Erreteria kasu. Errepresioaren aurkako ekintzak ere bai, amnistia. Eta festa.

Askatasunaren bila zebilenak askatasun osoa nahi zuen, eta dena batera ahal bazen. Iraultza soziala, independentzia, eta nola ez, norberaren askatasuna, zoriona. Herri-festak orokortasuna eta egunerokotasuna batera eramateko espazio handia ematen zion militantean. Eta hain zuzen, komeni da gogoratzea Bilboko festen itxura herrikoia 1978an abiatu zela, konpartsen bidez, eta Txomin Barullokoen inizatibari esken: elkarte honetakoak ez ziren autonomoak, ez, baina askatasunzaleak eta iraultzaileak bai, giroa bezala.

Hiri borroka honek langileen mugimenduarekin ere lotura estua zituen. Gogora dezagun Gasteiz: 1976an egun latzak eta intentsoak gertatu ziren, hiru hilabete greban, asanbladak, manifestak, errepresioa...; martxoaren 3ko bost hildakoak. Zaramagan eta Adurtzan, bereziki, langileen eta hiritarren borroka elkarrekin zebiltzan. Asanbladetan finkatuta, herri osoa ikutzen zuen.

Beste mugimendu sozialak ere aurkitzen ziren gure sozietatearen praktika kolektiboaren artean. Hedatuena, nuklearren kontrakoa. Arazoa ez zen soilki Lemoiz gelditzea: gogoeta sakonak egin ziren kontsumoa eta bizimoduari buruz, produktibismoaren logika kondenatzeko, bizimodu alternatiboak imajinatze eta praktikatzeko. Jende asko mugitu zen bileraz, ekintzaz, festaz eta manifestaz: 1977ko uztailearen 1an, 200.000 pertsona bildu ginen Bilbon. ETaren borroka armatuak garrantzi handia izan zuen Lemoiz gelditzeko; batzuek ere gaizki ikusi zuten protagonismo armatua, nuklearratik hara indian zihoan pentsakera alternatibo osoaren kaltetan gertatu zelakoan. Baina hemen azpimarratu nahi dena mugimenduaren presentzia eta onarpen soziala da.

Urte hauetan ere feminismoa hedatu zen. Berdintasuna da askatasunaren osakina: militante askok sentitu zuen egunerokotasunean gihartu nahi zen bizimodu berriaren osakin nagusienetako bat emakumeen eginkizuna zela. Gizonak ezin iraultzaile izan humanitatearen erdia mespretxatuz eta esplotatuz, emakumeak ezin iraultzaile izan norberaren sexua mespretxatuz eta umiliatuz. Bi sexuetako militanten artean feminismoaren eragina nabarria zen, eta autonomiaren artean neska batzuen pertsonalitatea arrunt eramangarria.

Antimilitarismoa autonomiaren osakin ideologikoa da. Botere armatua, hiltzeko boterea, monopolizatzen edo bahitzen duen kasia militarrez mesfidantza eta arbuioa nabariak ziren. Kanean, hala ere, formulazioak ez ziren oraindik oso argiak. Autonomoek desertzioa proposatzen zuten, baina aukera honek oso konpromezu gogorra eskatzen

zuen. Gazteek gero asmatu zuten Intsumisoaren borroka: orain hemen partaide da garai haietako aintzindari asko.

Beste esparru berezia presoek askatasuna, amnistia eta presoengien suntsitzea zen. Zabalkundea ENAMek ematen zion, eta autonomoak buru belarri ibili ziren preso abertzaleen aldeko kanpainetan. Baina edukin berezia eman zioten borroka honi, preso komunen aldeko ekintzetan parte hartuz eta sistema kartzelario eta errepresibo osoaren kritika gogorra eginez. Azken parte honetan ere aski bakarti ibili ziren.

Oro har, praktika militanteak eta jarrera herrikoiak lotzeko oso giro bizian eta oso era naturalaz ihardun zuten gure protagonistek.

Asanbladetan parte hartzea masibo eta irekia zen. Eta han egoteak ematen zuen zirrara pozgarria: militantzia ez zen gauza hitsa, iluntasunean egina, herritik eta lagunengandik apartekoa.

Lantegietan lankideekin, kaleetan eta mendietan herrikideekin. Uretan arraina, jatorriz eta etorritz.

Lantegien aldeko koordinaketaren beharra ere gauza naturala zen. Gainera, orain ez bezala, ez zen batere harrizkekoa lantegi batean zerbait gertatu ezkerko ondokoak grebara edo kalera ateratzea, solidaritatez.

Eta borroka horiek guztiak koordinatzeko beharra ikusten zuten. Koordinazioa, esan nahi baita autonomoak diren elkarrekin eta iniziatibek elkarlan iraunkor eta eginkorra. Horretarako ez zuten onartzen talde organizatu dirigente baten zuzendaritza: partidu edo sindikatu, berdin, inor ez zen masen zaindaria izango. Borroka partzialak integratzeko orokortasuna azpitik etorriko zen, eta ez batere talde dirigente batek asmatuko zuen bezalaxe.

Autonomiak dirigismoa onartu ez bazuen, ez zuten ere irentsi koordinaketaren beharra ukatzen zuen ultraezkertiaritasuna. Entsegu askotan hartu zuten parte koordinaketaren bi helburuak, gardentasuna eta eraginkortasuna elkarrekin eramateko.

Testuinguru honetan, borroka armatuaren beharra onartu zuten hasiera-hasieratik. Frankismoa gerra zibil odoltsu baten ondorioa zen; legitimidade aldetik, ez beraiek ezta herriak ere problemarik ez zuten borroka armatuaren sorburu zuzena onartzeko. Kapitalismoaren kontra, esperientzia armatuak ugari ziren historian, Hirugarren munduan, bai eta Europan ere. Italiako Autonomoak izan ziren gehien begiratu zuten garaian garaietako esperientzia.

Zapaltzaileak botatzeko indarraren beharra argi ikusten zen. Hitz batez, giro hartan borroka armatua giroak berak eskatzen zuen eta, oro har, gehiengoaren onospena zeukan; denek ez zuten berdin barneratua onspen hori, baina, bederen, faszismoaren kontra kasik beti justifikatzen zuten.

Lantegietan, kaleetan eta mendian, txibato eta txakurren aurkako erantzun bortitza garatzea duintasunak eskatzen zuen, ikusirik zer harrokeriaz eta zer bortizkeriaz tratatu eta tratatzen gintuzten. Eta borroka armatuaren lehen heina, hau da zanpatuta dagoenaren erantzun berehalakoa, begi bistako gauza zuzena zen.

Gero, afera da borroka armatu organizatua, horretarako propio den talde militar edo erdimilitar batean... Pundu hau ikutuko dugu gero, baina zehaz dezagun dagoeneko jarrera orokorra. Autonomoen artean, gehienek onartu zuten borroka armatua.

Justiziako erantzun gisa, beste borroken luzakin eta laguntzaile gisa, eta sistema kapitalista botatzeko ezinbesteko beharra bezala, ez zen gauza dudakorra.

Euskal Herrian, zuzen iduritzen zitzairen ETaren aukera. Beraiek beste modu batez planteatzen zuten herria eta militanteen arteko harremana, eta beste modu batez ikusten zuten independentzia erdiesteko bidea. Baina beti ukan zioten ETari begirune eta errespetu handia. KAek ekintza asko ETaren militanteekin solidaritatez egin zuten: eta autonomiak porrot egin zuenean autonomo bata baino gehiago ETn sartu zen.

## **IDEOLOGIA, TALDEAK ETA KOORDINAKETAK**

Antiautoritarismoa da ikusmolde honen osakin fermuena. Estatuaren aurkakoa, Elizaren aurkakoa, Armadaren aurkakoa, eta, ezker aldean, Leninismo eta bere ondorio guztien aurkakoa. Ekialdeko erregimen sozialistak burokrasia zanpatzaileak eta ez batere eredugarriak zirela zioten. Beraz, abangoardia zuzendariaren kontra ziren, eta bereziki langile klasearen gaineko alderdi eta sindikatuen kontrakoak.

Jarrera antiautoritario hau demokrazia zuzenaren praktikaz eta goraiatzeaz laguntzen zen. Demokrazia honen leku nagusia, asanblada. Herri-ekimen guztiak koordinatzeko beharra ere ikusia dugu. Borrokan, klase langilea da protagonista zuzena eta zuzendaritza ez da inoiz salbatzaile edo teknikoen eskuetan delegatua izanen.

Praktika horiek gauzatzeko autonomoak ez ziren soilki beraien artean ibiltzen: erakunde batugarri zabaletan ere ikusten ahal ditugu printzipio berak. Adibide gisa aipa genitzake Laudioko eta Errenteriako borroka urbanoak. Laudion, adibidez, (1977) argi esana zen helburua kontrabotere herrikoi eta asanblearioa sortzea zela, formula sustituistak arbuizatu eta demokrazia zuzenari lehentasun osoa emanez.

Ideologia honen beste osakin bat antikapitalismo gorria da. Kapitalismoa, sozietate osoa gobernatzeko eta zanpatzeko modu orokorraz ulertua. Eta antikapitalismoa, beraz, ez doakio soilki lantegietako esplotakuntzari: demokrazia errepresentatiboari, hauteskunderi, irakaskuntza eta moralari dagokie.

Burgesiarekin inongo konpromezurik ez zuten nahi. Euskadi askatzeko urratsa orokorra nahi zuten, etapismorik gabekoa. Beraz, Euskadiko burgesia nazionala etsaitzat zuten, eta beren arteko inori ez zitzaion burutzen Fronte Nazionalaren antzeko eraketa edota Autonomia Estatutu bezalako behinbehineko pausoa. Euskalduntasunak ez zion ezer ematen bertako burgesiari, tailerretan ezagututako nagusiei.

Alternatiba, berriz ere, autoeraketa da eta askatasun indibidual garbienean finkatua. Molde honetan pertsonen arteko sendimendu positiboak, amodioa, laguntasuna, solidaritatea heda zitezkeela pentsatzen zuten.

Ikuspegi, oro har, optimista, freskoa, garbia.

Euskadi askatzeko borroka orokorra, iraultzailea eta abertzalea, eramateko nahia eta gaitasuna; norberaren askatasunaren aldeko etengabeko entseguekin uztartu borroka hori. Zer gehiago eska daiteke borrokalariarentzat?

Ideologia honi erreferente ideologikoak bilatu behar bazaizkio anarkismoa eta marxismoaren ikuspegi kontsejista aipatu beharko genituzke. Alta, erreferentzia

ideologikoak ez dira oso ugariak autonomoen artean. Talde batek, LAIAk, zulatu zituen marxismoa eta han aurkituko sustraiak; ikuspegi ezkertiar erradikalari ongi zetorkion guztia aipatu zuen: langileen kontseiluak, maoismoaren komunak, iraultza kulturala, troskismoaren bi adarrak, stalinismoaren kritika eta iraultza iraunkorraren teoria, alegia. ZYXetik etorritakoek ekarri zuten anarkismoaren soka luzea. OICEren ingurukoek langile kontseiluen apologia. Baina, egia esan, inor saiatzen bada autonomoen sorburua ideologia baten segidan aurkitzen, erratuko da. Nire iritziz, borroka egiteko giroak sortu ditu sustraiak eta ikuspegi ideologikoak etorri dira gero, egiten ari zenaren esplikazio, osakin, aberasgarri, baina inoiz ez zuzentzaile.

Denbora jori, bero eta optimista hauek 1968an hasi ziren, eta bere urte bizienak 1975, 1976 eta 1977 dira. Leku mitikoak ere badituzte: Orereta, Pasaiak, Irun, Lezo, Donostia, Andoain, Tolosa, Gasteiz. Eta data ezagunak: Burgoseko Auzia, Bianchiko greba Oreretan 1971n, Gasteizko 1970ko martxoa, Erretereriako Koordinadora 1977an.

Komeni da, halaber, mugimendu autonomoaren sorburu organizatiboak aipatzea, testigantzetan irakurleak haien erreferentziak aurkituko baititu.

Langileen Komiteak ditugu lehenak. Kasik Gipuzkoan soilki, Gasteiz eta Nafarroara hedatuak. Antikapitalistak, antiautoritarioak, ekintza gogorren aldekoak. 1969ko udazkeneko grebetan abiatu ziren, eta azkartu Burgoseko mobilizazio antierrepresiboen kariatara. Han lotu ziren nazio erantzun abertzalearekin. Ikuspegi abertzaleak batzuen kritika ekarri zuen, hain zuzen OICErekin joan zirenenak.

ETatik ere etorri ziren militanteak. Gehienak militante zaharrak, Langile Frontean ibiliak eta ETaren bilakabide militarrekin ados ez zirenak. Abertzaleak direla esan gabe doa. Gero, ETA VI.eko "minoritario" batzuk, 1972an bereizi zirenak, klandestinitatea eta praktika asanblearioaren arteko harremanak sakondu zituztenak.

ETatik ere, agian zeharka, datoz LAIAkoak, eta bereziki LAIA EZkoak. LAIA 1974an sortu zen, ETatik bereizia, jarrera ezkertiar baten jabe. Emeki-emeki aurkitu zituzten jarrera kontsejistak eta libertarioak; KAS alternatiba etapistatzat kondenatu zuten. Honela sortzen zen LAIA EZ. Gero, Eibar, Urola eta Kostaldean Euskadiko Langile Komisio Antikapitalistak aurkitu zituzten eta 1975ean autonomoan.

XYZ inguruko anarkistak ere hortxe ditugu. Lehen Liberación taldea sortu zuten; gero Organización de Clase Anticapitalista (OCA-KEA) bilakatu eta, finean, autonomiaren esparru zabalean sartu.

Hauek dira autonomian aurkitzen diren organizazioak. Berriz, horien militante izan gaberik jende asko ibili zen borroketan eta inongo karnetarik ez zion inork eskatu.

Inguruan ere ibili ziren militanteak eta talde organizatuak. Ez da harritu behar. 1974tik 1977ra, langileen artean eta borroka urbanoetan asanblada dinamikak zeukan indar handiena: alderdi eta sindikatu erreformistek ere nahi ala ez onartu behar izan zuten dinamika honetan sartzea. Beren aldetik, hausturaren alde zirenek han zeukaten borroka alor nagusia. Asanbladak ez ziren autonomoenak, inondik ere, baina han aurkitzen zituzten beste guztiek.

Harremanak izandako alderdi eta erakundeen artean, aipa ditzadan, nonbaiteko ordenu kronologikoan, JOC, Eskola Sozialak, USO, MC, ORT, PT... Bi azpimarratzeko. Bat, eskas izan zelako: CNT, sindikatu anarkista, betikoa, historia aberatsaren jabea. Urte haietako

ikerleek diote ankilosatua zela, gerra aurreko ikuspegi sindikal eta politikoetan geldi. Euskadiko autonomia modernoarekin ia zerikusirik ukan ez zuelako konstatazio bat.

Bestea, OICE (Organización de Izquierda Comunista de España). Gure elkarrizketatuek aipatuko dute, espainolismoaren gora eta behera. Talde hau FLP zaharrek sortu zuten Círculos Obreros Comunistas eta 1973an abertzaleak ez ziren Langile Komiteetatik aterako Euskadiko Núcleos Urbanos Comunistas elkarteak fusionatuz sortu zen, 1974an. ETA VI.eko minoritario batzuk ere sartu ziren. Kontsejistik ziren, baina Alderdiaren Eginkizuna eta Espainiako Estatuaren Batasunaren beharra onartzen zituzten. Ez da harritzeko, harremanak nahasiak izatea.

Nebulosa honetan, bakoitzaren askatasuna koordinazioa bezain garrantzitsua zen. Egia esan, errezago begiratzen da norberaren nortasuna denen elkarlana baino. Fruitu eskasak eman zituzten elkarrekin aritzeko entseguak ere izan ziren: Burgoseko denboretan espontaneo zena 1972an errepresioaren aurkako komiteen bidez; 1974an Komiteak eratu ziren; 1975ean LAIArekin konbergentzia; 1976an Euskadiko Komisio Langile Antikapitalistak, 1977an Askatasuna, LAIA EZ, CNT eta OCA-KEaren konbergentzia.

Entseguz entsegu, batasun handia ez zen lortu. Baina kalean zegoen giroaren beroan, garai haietako ikuspegi orokorra oso optimista zen. LAIA EZek egoera aurreiraultzailean ginela uste zuen. Autonomian, oro har, eta protagonisten hitzetan esateko, antzeko zerbait pentsatzen zen:

«Burges demokrazia oraindik zegoen bermatuta eta frankismotik ateratzeko bidean aldakuntza sozial indartsu baten esperantza geneukan, demokrazia burgesa gaudituko zuena».

## **AUTONOMÍA HERRIKOIAREN KRISIA**

Baina sozietatearen errealitatea ez zen soilki militanteek ezagutzen eta sortzen zutena. Borroka denboretan, talde atzerakoiak, pertsona herabeak, ideia kontserbadoreak, isildu egiten dira, ez dira ikusten. Alta, hor dira. Eta oportunitatea ematen bazaie, ageri ageriko dira. Estatu espainiarrean, Erreforma bideratu zenean beraiek eman zioten legitimitatea.

Autonomiaren apustu nagusiak, alegia, iraultza irabazteak, porrot egin zuen. 1978tik aurrera, Espainian eta Hego Euskal Herrian ere erreforma bermatuko da, erreformismoak irabaziko du. Duda gaberik, egoera ez zen aurre-iraultzailea. Masen erradikalismoa ez zen heldutasun kontziente eta itzulezinaren ondorioa, baizik eta espresabide tenporal bat. Errepresioaren ondorioa, baizik eta espresabide tenporal bat. Errepresioaren aurkako errabiak eta beste espresabide normalen gabeziak areagotu zituzten itxurra errupturistak eta erradikalak. Frankismoaren ondoko ur nahasietan ikusten zenak ez zuen behar bezala isladatzen sozietatearen egoera. Erreformsimoak bere bidea aurkituz gero, masen tendentzia kontserbadoreak, inertzia historikoa, iraultzari beldurra, ageri ziren berriz ere, eta luzerako.



Honela, autonomiaren amets ederra pikotara joan zen. Eta ilusio eta poz asko ekarri bazituen ere, odolez eta malkoz oratua joan zen.

Autonomiaren krisian, beraz, egoera orokorraren aldaketa erreformista da gibeloihal nagusia. Kausa zehatz eta berehalakoetan hiru alor arakatu beharko genituzke.

Bat errepresioa, ez zen makala izan.

Bigarrena, autonomiaren barne arazoak. Koordinatzeko zailtasunak izan zirela nabaria da. Mugimendu sozialen problema orokorra da hau. Gainera, egitura iraunkor autoritarioen beldurra aipatua dugu. Gisa guztiz, koordinaketa zabal eta azkarra ez zen lortu. Eta talde bakoitzaren barne organizazioan problema berak errepikatu ziren.

Baina autonomiaren hutsegitea mingotsena egiten duen alorra azkena da, hain zuten partidu eta sindikatuen eragin galgarria, beraiek barnetik dinamitatu eta izorratu zituztelako autonomiaren lurraldea osatzen zuten mugimendu asanblearioak.

Has gaitzen sindikatuekin. Autonomoek ez zuten ezer jakin nahi sindikalismo tradizionalarekin. Beren ustez, sindikatuak kapitalismoaren partaideak dira, sistemaren osakinak.

Oro har, kapitalismoa indartzen dute eta hemen erreforma bermatu dute. Sindikatuek lantegietan agintarien tresnak dira.

Aipatu ditugun lehen denboretan, Comisiones Obreras eta ELA ibiltzen ziren; UGT gutxiago. Hasieran, asanbladak beren jokua ateratzeko erabiltzen zituzten. Gero, mugimendu asanblearioaren nagusitza onartu zuten, baina behartuta eta gogo gabe. Erreforma bermatu zenean, ahalegin guztiak egin zituzten beraien sistema normalera itzultzeko, hots, langileen protagonismo zuzena kentzen eta beraiek kapitalaren mintzokide bakar eta zentzudunak bilakatu.

1976tik aurrera, Franco desagertuta, alderdi eta sindikatu gehienek erreformaren alde jotzen dute. CCOO, UGT eta ELA beren burua indartzera doaz. Fabriken Koordinadora 1977an desagertu zen Bizkaian. Hitz batez, Erreformaren zentzua, sindikatuen nahikeriak eta masen konformismoa alkartzen dira. Sindikatuek egingo dituzte barnetik ahalegin guztiak asanbladak indarge uzteko, eta patronalak eta Estatuak sindikatuekin eta soilki sindikatuekin negoziatuz, masei sinestaraziko diete zerbaiten lortzeko hori zela bide posible, errealista eta heldu bakarra.

### **KAS ALTERNATIBAREN KONTRA ETA ENAM-EKIKO HARREMANAK**

Autonomiak sindikalismo erreformistaren ofentsiba bere oinarri sozialean sofritu bazuen, are gehiago barnatu zuen beste errupturistekin izan zuen ez ulertzea. Euskal nazionalismo erradikalari buruz ari naiz, ETAREN inguruko mugimendu zabalaz: askatasun nazionalerako mugimendua (ENAM).

ENAMek ere ez zuen erreforma onartu. Abertzaleak, abertzale ziren, eta iraultzaileak, iraultzaile. Ez autonomoak bezala, baina, nonbait, barrikadaren alde berean ziren. Eta ENAMek Autonomoen kontra eraman zuen gupidarik gabeko ofentsiba ahuldu, izorratu eta desmoralizatu zuen autonomia.

Egia esan, kritika politikoaren esparruan autonomiak jo zuen lehen ofentsiba. KAS alternatiba ez zuen onartu, eta gogor arbuiatu zuen. Berdin autonomo guztiek, oro har, edo Komando Autonomoek partikularrean. LAIAk, adibidez, esaten zuen KAS programa demokrazia burgesarekin konpatiblea zela, egiten ahal eta behar zen aukera iraultzailearekiko atzerapauso bat. Autonomoen artean, garbi: «KAS programa demokrazia burgesa lortzeko puntu minimoak dira; gure iritziz, burgesiari ez zaio eskaini behar: egin behar dena da borroka hedatu eta sakondu, boterearen kontra zuen». Eta KAek:

«La alternativa KAS, a pesar de significar un tipo de democracia bastante avanzada, no evita el peligro de que esta democracia se consolide y a pesar de ser avanzada sigue siendo burguesa. Creemos que la única forma de evitar estos peligros es luchar desde hoy por el objetivo final, es decir, estar continuamente diciendo al pueblo cuales son nuestras metas, la Independencia y el Socialismo». (1978) Hau da: KAS alternatiba erreforma burgesa aurrerakoia izaki, burgesa da. Horretan herria geldiaraztea ekidin behar dugun galbidea da, eta horretan ez erortzeko garbi borrokatu behar dugu, gaurdanik, independentzia eta sozialismoaren alde.

ENAMek ez zuen batere preziatu ezkerretik zetorkion kritika gogorra. Lehen urteotan, halere, dinamika asanblearioaren eragina ENAMen barnean ere nabari zen. LAB, adibidez, asanblearioa zen beren sortzean, 1975ean.

Baina gero ez. Mugimendu sozial asanblearioaren krisia arin abiatu zenean, LABek utzi zituen bere gaztaroko bekatuak eta afiliatuen sindikatu bilakatu zen, 1978an. Ez zuen holakorik egin sindikatu erreformistek zeukaten helburu ustelekin, ez, baina autonomoen ametsi beste kolpe latza eman zien. Oro har, ENAM osoak onartu zuen egitura leninista, zuzendaritzaren nagusitza: ENAM herriaren abangoardia eta ETA, ENAMena.

Beraiek kontrolatzen zituzten egituretan eta eragina zuten giroetan, batasuna goraiatu zuten, esan nahi baita aldameneko ezkertiarren salaketa eta baztertzea.

Autonomoen kexak nabariak ziren eta dira. Liburu honetan ere aurkituko dituzue. «Herri Batasunak, -diote-, kontrolatzen ez duen guztia desegin nahi du... HASI (orain desagertua, baina garai batez ENAMen alderdi zentrala) arrunt leninista da, eta iraultza bakarrik partiduaren gidaritzapean egin daitekeela pentsatzen du...».

Praktikan, HBk bere eremu ondoko asanbladak barnetik desegin zituen, eta horretarako ETArekin pisu moral eta politikoa erabili zuen. Horren kontra, abertzaleen esparruan gutxi egiteko zeukaten autonomoek.

Eta zer egin zuten? Batzuek HB eta ENAMekin gogor apurtu eta enfrentatu, baina gehienek ez.

«Gure jendeak, -diote-, ez zuen argi eta garbi euskal mugimendu organizatuaren aurka joan nahi». ETARI oso errespetu handia zioten, errespetu morala, errespetu politikoa, bizia arriskatzen duen lagunari zor zitzaion errespetua.

Errespetu baino gehiago. Amets autonomoa ENAMen barnean ere bizi zitekeela pentsatu zuten askok. HBren barnean agertzen diren izpi asanblearioak sinetsi eta baloratu zituzten. Testigantzetan ikusiko duzue, HBren barnean eta ENAMen inguruko mugimenduan autonomo ohi asko dabil. Amnistia, AEK, Ekologia,... Batzuk erre dira, eta ENAMekin hautsi; beste batzuek jarraitu eta orain oso pertsonaia ezagun

bilakatu zaizkigu. Oro har, autonomiak ENAM oso gogor kritikatu bazuen ere, barrikada lagun batekin bezala ibiltzea nahiago izan zuen.

Baina ENAM eta autonomiaren arteko harremanen arazo nagusia KAen esistentzia bera izan zen. Komandoak, izan, autonomiaren atal bat baizik ez dira; garrantzitsuena? Ez nire ustez, autonomiaren oinarria egin zuen mugimendu sozial handiak duen esanahi nagusia. KAek beraiek gauza bera esaten zuten. Halere, gure gatazkan espresamolde armatuek izan dute leku berezia; komunikabideek lehentasuna eman diete, eta, ENAMen aldetik, ETari emandako leku zentrala isladatzen da beste mugimenduei buruz bere militanteek duten ikuspegian.

Beraz, KAek hartu zuten leku berezia. Eta komando hauetaz hitz egin behar dugu.

### KOMANDO AUTONOMO ANTIKAPITALISTAK

Tamalez, komandoak agertu ziren uhainaren gandarrean, esan nahi baita gainbeherakada abiazen ari zenean. Konpromezu gogorrena onartu zuten militanteek mementu txarrean egin zuten, beren oldarraren azpiegitura ahultzera kondenatuta zegoenean. Honek talde armatu klandestinoak ere kondenatzen zuten.

Sorrera 1976aren inguruan koka daiteke. Egia esan, eta aipatu dugunez, autonomoek bazuten egintza gogorrak, baina ez militarrik, egiteko ohitura. Manifik, normalak eta zilegiak zitzaizkien.

Ustezko egoera aurre-iraultzailean eta masen borrokak bai aurrera jotzen zuenean, borroka armatuan serio aritzea planteatu zitzaien. Ikuspegi autonomo hutsenean, borroka armatua behetik gora sortu beharko zen, langileen borrokekin zuzenki lotuta. Sorburu libertario zeukatenentat, problema nagusia ez zen boterea lortzeko estrategia, baizik eta burgesiaren boterea deuseztatzeko herriaren protagonismoa bultzatzea. Beraz, iraultzaren protagonistari, autoorganizatzen den herriari, langileen autonomiari, lehentasuna ematea zen strategiaren ardatza. Talde armatuaren ekintzak mugimendu asanblearioak erabakiko zuenaren arabera zirenak.

Hitzez hitz:

«El pueblo ha de ser el único protagonista directo y dirigente del proceso revolucionario, siendo nuestra función potenciar este protagonismo y completar la acción directa del pueblo armado aprovechando las posibilidades que ofrece una estructura clandestina pero sometiéndonos a las directrices generales marcadas por el pueblo».

Ekintzak, beraz, berez esplikatu ziren, herriarengandik zuzen etortzen zirelako eta borrokan ari ziren herritarren nahikundearen arabera obratuko zirelako. Idealean, asanbladetan eztabaidatuko ziren beharrezko ekintzen ardatz nagusiak, eta talde armatu klandestinoak aukeratuko zituen helburu eta forma zehatzak. Asanbladetatik ateratzen zen biolentzia natural eta espontanea era tekniko egokiaz bideratzeko, komandoak sortu nahi izan zituzten.

Baina borroka armatu klandestinoak oso erregela astunak ditu, ez da era espontaneoaz inprobisatzen ahal. Hasteko, horretarako prest diren militanteak eta behar diren armak

aurkitu behar dira. Eta KAen sorreran, ETatik zetozenek zeuzkaten azpiegitura materiala eta klandestinitatearen ohitura.

1975 eta 1976an gertatzen da lehen konbergentzia. ETA Viko gutxiengoak, LAIA EZkoak eta ETA PMko bereziak: talde bakoitzetik jalgitako batzuk elkartu ziren. Lehendabiziko biek ikuspegi libertarioa zeukaten, autonomoak ziren hitzaren zentzu sozial eta politikoa; Bereziak, berriz, ez-, hauentzat, autonomo izatea zen buruzagitza nagusi baten pean ez egotea, komando bakoitzak obratzeko askatasun osoa izatea. Bereziak problemak zituzten beren buruzagitzarekin; abertzale eta iraultzaileak zirela eta, beren ustez, aski zuten izate hau inoren manamenduaren gaberik behar zen bezala jokatzeko.

Eta KAen historian iraunen duen kontradikzioa hemen sartu zen. Armak ukaiteko eta jendea biltzeko, bi sentsibilitate desberdin, bi sorburu desberdin eta, nolabait, borroka ulertzeko bi modu desberdinak elkarrekin uztartu ziren.

Gero, eta batez ere 1978-79an berriak sartu ziren. Hauek dagoeneko praktika autonomo herrikoietatik jalgitzen ziren. Komandoak hedatu ziren. Deba Garaian, Azpeitian, zerbait izatera heldu ziren laster.

Komando klandestinoen historian, arazo handiak aurkitu zituzten. Errepresioa ezin ahaz dezakegu. Gainera dezagun poliziaren efikazia areagotzen zela ETAREN indarraren arabera: ETAK oso borroka gogorra zeraman, eta poliziak hobekitzen zituen bere informaziobideak eta bere interbentzio tresnak ETARI jarraitzeko. Azpiegitura askoz gutxiago zeukaten KAak galtzaile gertatu ziren lasterka honetan, *outsider* hutsak. Irauteko baldintzak oso gogorrak, beraz.

Gero, autonomiaren ametsa eta errealtatea ez zetozen bat: ohitura asanblearioak eta klandestinitatearen beharrak ez dira oso konpatibleak. Mugimendu herrikoiak aurrera jo izan balu, kanpoko oldarrak eraman zitzakeen aurrera barne arazoak, baina hori ere ez zen gertatu. Barne kontraesan hauetaz ere hitz egiten dute liburu honen lekukoek.

Baina, nire iritziz, arazo nagusiak izan dira ETAREN existentzia eta praktikaren inguruan gertatu zirenak.

KA-en barnean eztabaida biziak gertatu ziren ekintza armatuaren helburuen inguruan. Lehen jarrera guztiz garbiari, hau da, masen borroketan gertatzen zen biolentzia espontaneoaren segida eta aurreraraztea, laster elkartu zitzaion ekintza antierrepresiboaren beharra. Eta errepresioa, laster ere, ETAREN inguruan zentratu zen. Poliziak hil behar ziren ala ez, edo ekintzak soilki herri mugimenduen espresamoldeen inguruan egin behar ziren, hona hurrengo orrialdeetan irakurleak ikusiko dituen eztabaidak. Esan dezagun ekintza antierrepresiboak onartu zirela. Eta honek ETAREKIKO oso jarrera berezia sortu zuen: KAek ETAK pairatzen zuenaren erantzunez atentatu gogorrak egin zituzten. Beraientzat, solidaritatearen legea. ETAK, berriz, ez zituen batere begi onez ikusten: berak zeraman borrokari buruz, parasitismoa eta desbideratze arriskuak iduritzen zitzaizkion ekintza horiek. Kontraesan hau garbi-garbi lehertuko da KAen azken denboretan.

Lehen denboretan, oraindik gazte eta azkarrak zirenean, KAek izan zuten ETARI buruz autonomiak ENAMI buruz zeukan jarreraren **foto**kopia. Hau da, ETA kritikatu zuten leninista zelako, KAS programa eta bere ondorioak ez zituzten onartu etapistak zirelako, baina ETA eta bere militanteei errespetu handia zieten eta elkarrekin ibiltzeko gogoak jakinarazten zuten. Hasieran izan ziren elkarrekin ibiltzeko posibilitateak, nahikundeak?

Liburu honetan lekukoek baietz diote, Argalaren denboretan, gero Txomin Iturberen eraginez... Horren berrik ez daukat, ezin ezer gehiago esan.

Aitzitik eztabaiden eta enfrontamentuen berri, bai. 1979an NAetan zatiketa bat gertatu zen: ETAREN araberazko jokamoldea gatazkaren erdi-erdian zegoen. Autonomiaren jarrera traizionalararen aldekoek ez zuten ETA militarrekin elkarrekin jarraitzeko posibilitaterik ikusten. Hona beren ikuspegia; ezaguna zaigu dagoeneko.

«ETA es elitista en su concepción de la revolución y del papel de la vanguardia, autoritaria en su organización interna y mantenedora de una línea de negociación táctica, el programa KAS, asimilable por la burguesía».

Beraientzat: autonomia, klasearen autonomia da; bere helburuak, antikapitalista hutsak; sistemaren aurkako borroka, orokorra. Beraz, demokrazia zuzenean oinarritzen den estrategiak soilki herri boterearen erakundeak onartzen ditu, eta arrunt inkompatiblea da alderdi, sindikatu eta antzeko egitura autoritario eta ordezkatzailleekin.

Komando hauek onartzen dituzte ETAREKIKO solidaritatea eta errepresioaren aurkako ekintza zuzenak, baina ez dute ezer jakin nahi KAS programarekin eta ENAMEN egitura eta disziplinarekin.

Berriz, KAS eta ENAMEN alde ezartzen da KAEN parte bat. Haien zat autonomia komando bakoitzaren ibilera autonomoa da, eta independentzia eta sozialismoaren alde edonor, asanblada eta autoeraketa onartzen dituen edonor, autónomo izan daiteke; jarrera hau, zioten, guztiz konpatiblea da KAS alternatibarekin eta ENAMEN alderdi eta sindikatuen onartzea eta laguntzearekin.

Bi jarrera hauek hasi-hasieratik zetozen. Eta jarraituko dute.

## **MENDEKUZ MENDEKU HONDAMENDIRAINO**

ETAk erantzun zien kritikoei. Eta ez goxoki.

Bere borrokaren gaineko bizkarroiak bezala sentitzen zituela esana dut. Gainera dezadan ETAk oso gaizki hartzen zuela konpetentzia hura. Ezkerretik etorritako kritika erradikalak min ematen dio iraultzaren monopolio ukan nahi duen edozein alderdi ortodoxoari. ENAMI holako zerbait gertatu zitzaion. ETARI alderdi komunisten ohitura txarrenak ere kutsatu zitzaizkion. Esan nahi baita, kritika ideologikoa laster asimilatzen dutela konplot poliziakoarekin; objetiboki, diote, kritika horiek iraultza ahultzen dute, beraz (silogismo erraz) iraultzaren aurkakoek sortzen dituzte. Etsai objetibo oso erraz bilakatzen da poliziaren morroi.

Ikusiko dugunez, historiaren ulerkera poliziakoa ETAk ENAMEN laster eta azken muturreraino aplikatu zieten KAei.

Hona hemen, hitzez, ETAREN lehengo ikuspegietatik bat:

«Sus acciones son un peligro real de negativa contraposición al proceso revolucionario vasco emprendido por las fuerzas del KAS. Llevaren Euskadi una actividad armada dirigida democráticamente por los trabajadores es un absurdo perfectamente inviable.

(Honaino kritika ideologikoa eta estratéjica, guztiz zilegia). Los CCAA, (jarraitzen dute gero) por su estructura más o menos anárquica son muy asequibles a la infiltración de la policía, o a agentes a sueldo del servicio de información español que provocarían así una serie de acciones destinadas a desprestigiar y desacreditar este proceso de lucha armada, así ETA podrá pensar que son grupos potenciados y apoyados por la tolerancia represiva con objeto de servirse de ellos para contrarrestar el potencial de lucha armada de ETA» (1979). (Amalgama eta mehatxuekin burutuz).

Testuinguru honetan gertatu ziren azken urratsak. 1984an KAek Enrique Casas hil zuten. Geroxeago, poliziak sarraski bat obratu zuen Pasaiako portuan, Casas hil ornen zuen komandoa gupidarik gabe eliminatuz. Gertakari lazgarri honetan argi eta garbi ageri zen ENAMek non kokatu zituen KAak. Azken finean, errepresioak mendratuak, oinarri soziala arrunt ahulduak eta ENAMen madarikatuak, KAen azkena zettorren, arrabiaz, malkoz eta odolez. Gure elkarrizketatuek esaten dutenez, Komandoak gelditu ziren «galduta eta salduta».

Enrique Casas senatore sozialista zen, gipuzkoan egitekotan ziren hauteskunde autonomikoetan zerrendaren lehena eta gobernu zentral eta autonomikoaren artean sortutako Seguritate Kontseiluaren partaide. Azken funtzio hau azpimarratu zuten KAek; haien zat, Casas zen gerla zikinaren erantzule nagusienetako bat. Gerla zikin hori oso gogorra zen urte haietan: Ipar Euskal Herrian errefuxiatuak lasterkatzeko eta eliminatzeko politika hasi zuen botere espainiarrak. hain zuzen, otsailaren 23an Casas hil zutenean, KAen errebindikazioak azpimarratzen zuen ez zutela holako asesinatze eta bahiketarik gehiago jasanen eta Lasa, Zabala, Peru eta Steinen izenak gogoratzen zituzten.

Beraz, argia dena: KAen aldetik solidaritatezko ekintza izan zen, aipatu dugun jarrera iraunkorraren arabera. Baina ETAk eta ENAMek ez zuten honela onartu. Komunikabideek ETAREN gainean bota zuten ekintza, eta alderdi konstituzional guztiek parada baliatu zuten HBren kontra jotzeko. Hauteskunderen bezperan, eraso gogorra zen. Krimena nori profitatzen zaion galdezka, ETAk eta ENAMek KAen deskalifikazio gogorrena egin zuten: poliziaren probokazioaren tresna hutsa ziren, non ez ziren poliziak.

Hona testuak.

ETA: «No nos hacemos responsables. Enmarcamos este atentado dentro de la guerra sucia comenzada por el propio PSOE y en desprestigio de la alternativa KAS en vista a las elecciones del próximo día 26. Culpamos del atentado al mismo PSOE».

HB: «Condena más rotunda... Clara provocación... Clara intencionalidad de boicotear la campaña electoral... ¿Quién está detrás de esta muerte? (...) (Hauteskundeetan aurrera doazela eta oztopo ezarri nahi dietenak)... Hay hilos ocultos intimamente conexiónados con los centros de inteligencia que dirigen el proceso de reforma del Estado Español que tienen que estar detrás de ésta como de otras muchas acciones que están aconteciendo en los últimos tiempos... (La muerte de Enrique Casas) es la última actuación de la guerra sucia».

Ikuspegi honen azken ondorioa Pasaiako hilketen ondoan gertatu zen. ENAMek argudiatu zuen poliziak egindako garbiketak helburu garbia zuela: lekukoak eliminatu, poliziaren maniobra zikina betirako izkutatzeke.

Lagunakgaldu zituztenentzat eraso hau guztiz gogorra eta ahanztezina izan zen.

Baina ENAMen ikuspegi ofiziala finkatu zen betirako: autonomoak? Onenean, kaka nahasten ibiltzen diren anarkomarjinalak; txarreanean, poliziaren maniobra bat ETA eta ENAM ahultzeko.

Autonomiaren historia eta pertsonak ezagutu ditugunentzat, ikuspegi hau faltsua eta lotsagarria da.

Baina iraupen luzea du.

1987ko apirilean izan ziren Portugaleteko gertakariak. Gazte batzuek koktel molotovak bota zituzten PSOEko Casa del Puebloren aurka. Berriz ere, hauteskunde garaietan ginen; eta koktelak botoa zituztenen artean, batzuk ibiltzen ziren Mendeku kolektiboan... auskalo zer kasualitatez, Casasen hilketa bere gain hartu zuen komando autonomo baten izena.

Urte haietan autonomiaren esparrua ez zen gehiago langile eta hiri asanbladen mugimendu handia izan. Guztiz antiautoritarioak ziren gazteak alor xumeetan ibiltzen ziren: etxeak, lokalak, kontzertuak, soldaduzka... Beren burua autoritate guztien kontra antolatu nahi zuten, baita HBren kontrolaren aurka. Aintzineko autonomoak bezala, solidarioak ziren poliziak persekutatzen zituen ETAko militanteekin. Hain zuzen, koktelen botatzea bururatu zitzaizen polizia frantsesak beste bi errefuxiatu entregatu zizkiolako espainiarrari.

Portugaleten bertan, HBk dagoeneko begitan zituen «anarkoide» eta «autonomazo» horiek, KAS alternatiba onartzen ez zuten eta Jarrai arbuiatzen zuten gazte libertarioak.

Komunikabideek ETArri eta HBri bota zioten errua. Bere burua defendatzeko, HBk errepikatu zuen aintzineko ikuspegia. Berehala esan zuten esatekoa-

«La policía y el gobierno civil saben perfectamente que el grupo Mendeku ha sido y es enemigo ideológico y político de HB. La acción de los cócteles molotov en Portugalete es muy similar a la provocación política que acabó con la muerte de Enrique Casas, asimismo realizada por grupos ideológicos enemigos de Herri Batasuna y, por casualidad, en periodo de elecciones».

Portugaletearena kari, erridikuloa eta izugarrikeria uztartu ziren gaindiezinezko punturaino. Testu bat gehiago aipatuko dut bakarrik, Jarraiko bozeramailea, Floren Aoizek sinatua; Casasen hiltzea naziek eragindako Reichstag-en sutearekin konparatuz gero (!), honela dio haren herotzaz:

«Moría a manos de un grupo de ultraizquierda, los comandos autónomos anticapitalistas, totalmente ajeno y contrario por su ideología y su práctica al MLNV. Este grupo, los CCAA, posiblemente estuvo infiltrado en esa acción, pero hasta el momento no se ha sabido, porque la policía española los liquidó físicamente en Pasajes más tarde, menos a uno»

Autonomoek jarraitu dute. Testigantzatan irakurriko dituzu, irakurlea, jarraitu egin dutela. Betiko arloetan, baina orain ahal den bezala. Izkolu zaharrak ateratzeko prest, nire iritziz, inoiz okasioa errepikatzen ez bada, inoiz herria altxatzekotan badabil. ENAMekin bere harreman konfliktualetan ere jarraitu dute; batzuk abandonatuta eta marjinatuta sentitu dira herrietan eta kartzeletan, beste batzuk, berriz, bururaino integratu dira ENAMen kolektiboetan.

Nire iritziz, borrokalari ausart eta garbien aurrean aurkituko zara. Inoiz iraultza egiten bada, egiten badugu, beraiek defendatu dituzten bideetatik etorriko da. Erreformari buruz egindako apustua galdu zuten, baina honek ez du esan nahi beren baloreak desagokiak zirenik. Garaipenak ez du zerikusi handirik justiziarekin.

*Baina justizia goseak jarraitzen dute eta honek emaiten die irauteko gaitasuna.*

Eta hau guzti hau holan delako, borrokalari garbiak zirelako, justizia goseak gaudelako, orain, hitzaurrea bukatzeko, zerbait esan nahi nuke, oso pertsonala, liburu honen editoreak konprometitzen ez duena: haien gainean egotzi den zikinkeria garbitu behar dela.

Ezin galde diezaieket politikoari eta komunikabide konstituzionalei autonomoen gainean botatako zikinkeria zuzen dezaten; ustelak ustel, eta kito. Baina bai Herri Batasunari: irekidura eta Urrats Berrien garaietan dira. Hobe lukete, diot, hobe lukete paradaz baliatu KA eta autonomiaren gainean botatako zikinkeria zuzentzeko eta, besterik gabe, argi aitortzeko herri honen askatasunaren aldeko borrokalariak zirela.

Honek merezi duen errespetu guztiarekin. Desakordio politikoen haraindian, jendetasunaz, iraultzaileen arteko laguntasunaz.

*Emilio López Adán*